

## **BIBLIOGRAFIA**

Atal honetan, ikasturtean zehar lan-taldean irakurri eta aztertu diren liburu eta artikulurik interesgarrienen laburpena edota adierazpena aurkezten ditugu.

**FLECHA, R.; GÓMEZ, J. (1995), *Racismo: no gracias. Ni moderno ni posmoderno*, Barcelona, Colección Debate.**

Ekialdean –batik bat- ematen den arrazakeriari buruzko saiakera labur bat. Alde batetik arrazakeria bermatzen duten filosofoen ideiak deskribatzen ditu (Nietzsche, Heidegger, Foucault, Lyotard, etb.) eta gero arazo horren aurka dauden pentsalariak, esate baterako, Habermas, perspektiba komunikatibo eta kritiko batetik. Teoria honetatik irtenbideak bilatzen zaizkio gatazkari. Liburuan azterketa orokor bat egiten da arrazakeriaren gainean, kultura guztiekiko begirunetik abiatuta.

**FLECHA, R. (1998), *Compartiendo palabras. El parentizaje delas personas adultas a través del diálogo*, Barcelona, Paidós**

Azpitituluak dion bezala, elkarrizketaren bidez egindako helduen ikasketaz mintzatzen da liburu honetan. Literatura hizketaldia erabiliz, hasiera batean sistema akademikotik baztertutzat hartu ohi diren pertsona heldu batzuegan espektatiba pertsonal eta kultural zabalak sustatzen dira. Literatura hizketaldia Bartzelonako auzo langile batean burutzen da eta taldea osatzen dute kideek irtenbide kultural berriak bilatzen dituzte, eliteko literaturaren bidez: Dostoievsky, Kafka, Lorca, Joyce, Safo..., eta egoera bereko elkarrizketa, elkartasun eta eraldatzean baliabide gisa metodologian. Atalez atal hizketaldiaren kide bakoitzaren egoera aztertzen da, arazo sozialak barneratuz bide batez, esate baterako: "Manuel. Una vida contra las desigualdades", "Lola: de "analfabeta" a creadora de tertulia literaria", "Rocío. Superando el edismo", "Antonio. Contribución gitana al diálogo", etb.

Esperientzia honekin frogatuta geratzen da egoera berdineko elkarrizketaren ahalmen askatzailea eta mito batzuen gainditzea: gizartearen zenbait sektoreen ezjakintasun iraunkorra, adibidez, edo ikasketak burutzeko ezintasuna adinarekin lotzea. Liburuak, azkenik, berdintasuna, elkarrizketa eta eraldaketaren alde arbuatzen du, eta hau dena helduen hezkuntza dialogikoa adibide hartuta.

**CASTELLS, M.; FLECHA, R.; FREIRE, P.; GIROUX, H.; MACEDO, D.; WILLIS., (1994), *Nuevas perspectivas críticas en educación*, Paidós Educador.**

Liburu honetan teoriak eta hezkuntzako esperientzi berritzaileak biltzen dira, feminismo, ekologismo, teknologi berrien aurrerapena eta horrelako gainontzeko gizarteko alderdiak kontutan harturik. Hezkuntzatik abiatuta, gizartearen eraldaketa edo hezkuntzaren gaitasuna, behintzat, bilakaera horretan aritzeko aldarrikatzen da. Hauexek dira agertzen diren atalak:

- Flujos, redes e identidades: una teoría de la sociedad informacional (Castells)
- Las nuevas desigualdades educativas (Flecha)
- Educación y participación comunitaria (Freire)
- Jóvenes, diferencia y educación posmoderna (Giroux)
- Nuestra cultura común: una pedagogía engañosa (Macedo)
- La metamorfosis de mercancías culturales (Willis)

Flechak bere atalean azaltzen du nola Informazioaren Gizarteak baimendu duen eredu bikoitzaren (lehenengo sektorekoak eta “ez-adituak”) ugalketa eskola barnean, desberdintasunen egoerak larriagotuz. Ondoren desberdintasunaren arazoa aztertzen du zenbait ikuspuntutik: tradizionala, post-modernoa eta komunikatiboa. Azken honetan murgilduko da, elkarrizketaren abantailak nabarmentzeko kultura ezberdinak haintzat hartzeko eta berdintasuna lortzeko.

**GIROUX, H. A.; FLECHA, R., *Igualdad educativa y diferencia cultural* (1992), El Roure, Colección Apertura, Barcelona.**

Bi autoreen artean hurrengo atalak garatzen dituzte:

- . Alfabetización y poder.
- . Más allá de la teoría de la reproducción.
- . Modernidad, posmodernidad y educación.

Gaur egun kontserbadore edo eskuineko alderdien goraldien aurrean bilatu behar da esker ikuspegitik hezkuntzarako politika egoki eta kultura askatzailea. Errepublikapenaren hezkuntza zaharra geratu da hezkuntza berri bat, eraiki behar da beraz, teoria kritika eta ikasle mota guztientzako.

Europar eta Estatu Batuetan hezkuntzan dauden ereduak aztertu ondoren komunikazio, askatasunean eta ezberdintasunekin errespetuzko printzipioetan oinarritzen den pedagogia sozial berri bat proposatzen dute.

**BECK, U. eta BECK-GERNSHEIM, E.: *El normal caos del amor*.**

Ulrich Beckek eta Elisabeth Beck-Gernsheimen maitasun harremanetan azaltzen diren gatazken alderdi teoriko soziala jorratzen dute. Gaur egungo egoera transizio unetzat hartzen dute, bizi osorako famili bakarraren eredutik bizitzan zehar aldikako familia desberdinen moldeetara edota elkarrekin bizitzeko familitik kanpoko ereduera. Hezitzaileon ikuspegitik bereziki garrantzitsuak izan dakizkiguke laugarren eta bosgarren kapituluak.

Laugarrenean “*Todo por amor al hijo*” zenbait klabe azaltzen dute gaur egun haurren inguruan suertatzen diren portaerak ulertu ahal izateko. Hala, egun, haurra jaio aurretik ere izugarritzko interesa pizten da bere hezikateri buruz, gurasoei asko eskatzen zaie (227.orria) baina haurrentzat ere baditu egoera honek ondorioak (244.orria); besteak beste aholku pedagogikoen menpe bizi dira, zeharo aztertuak eta zainduak baina aldiberean eta egindako ahaleginaren ondorioz izugarritzko espektatiba jartzen dira eurongan (247.orria): arrakasta eskolan, lagunartean...; prestakuntza zabala opatzen zaie, agian denbora libre ere arautuz...Espektatibak betetzen ez badira giro gaiztotu egiten da familian. Dinamika konplikatu izan daiteke zenbaitetan eta hortik sortzen dira egoera jasangaitzak batzuetan biolentoak izatera hel daitezkeenak.

Bosgarrenean “*la manzana tardía de Eva o el futuro del amor*” gizarte industrialetik gizarte modernora igarotzeak eraginadako egoera berriak analizatzen dituzte: gizon eta emakumekoi dagozkigun “rol”-ak, prestakuntzarako emakumekoi zabaldu zaizkigun

aukerak, lanak eragindako leku- aldatzeak..., aldaketa hauek guztiek familiaren bizimoduan daukaten eragina: banaketak eta bigarren/ hirugarren ezkontzak gehiagotzea, familia tipo desberdinak ugaritzea (bikotekide aldaketa dela eta sortutako familia ugariak, guraso bakarreko familiak...).

**MAALOUF, Amin:** *Identidades asesinas.*

Egileak berak epilogoan azaltzen duenez, liburuaren helburua hausnarketarako proposamen bat luzatzea da. Gizarterako, orokorrean, egiten dituen oharra eskolara bideratu ahal ditugu: eraikizen ari garen zibilizazio berrian eginahalak egin behar ditugula inor baztertuta aurki ez dadin; denek aurki dezaketean bertan euren hizkuntzaren eta euren kulturaren adierazleak; denon hizkuntzak eta denon kulturak tokiren bat izan dezaten bertan, denok eduki dezakegun bertan identifikatzeko aukera, pixkat bada ere. Liburuko lau ataletan zehar honako gaiak jorratzen ditu:

1. Mi identidad mis pertenencias:

Norberaren nortasunaren zehaztapena oso esparru zabala da, bizitza osoan zehar eraikitzen eta garatzen dena; pertsona batek aldarrikatu ahal ditu, aldi berean, bere kidesunak eta bere ezaugarri propioak “Identitate hiltzaileak” dira pertsona bere ezaugarri bakar batekin identifikatzera daramatenak.

2. Cuando la modernidad viene del mundo del otro:

Islama ba ote da batera ezina askatasunarekin, demokraziarekin, gizon emakumeen eskubideekin, modernitatearekin? Egilearen ustetan galdera honen erantzuna ez da testu sakratuen gainean egindako interpretazioetan bilatu behar baizik eta historian zehar islamaren jarraitzaileek izandako portaeretan. “*Cuando la modernidad lleva la marca del Otro, no es de extrañar que algunas personas enarboles los símbolos del arcaísmo para afirmar su diferencia*” (87.orria).

3. La época de las tribus planetarias:

Globalizazioaren eraginez indartu egiten da nortasunaren aldarrikapenaren beharrezana; egilearen ustez norberaren jaioterriarekiko identifikazioa eta lurralde zabalago batekikoa uztartzea da gizateriaren geroa bermatzeko bidea.

4. Domesticar a la pantera:

Erljioak, hizkuntzak edota etniak berezitako gutxiengo komunitateen kulturarekiko begirunea da egonkortasun politiko eta soziala lortzeko oinarritzko baldintza. Kultur ondasunak babesteko ikuspegi ekologikoa aldarrikatzen du: “*la batalla por la diversidad cultural se ganará cuando estemos dispuestos a movilizarnos intelectual, afectiva y materialmente para defender una lengua en peligro de desaparición con tanta convicción como para impedir la extinción del panda.*”

**FREIRE, P.** (1997): *Pedagogía de la autonomía.* Madrid: Siglo Veintiuno.

140 orriko liburu hau oso argia eta interesgarria da. Irakasteari buruzko bere hiru atalak oso baliogarriak dira irakasleen lantaldeetan hausnarketa bultzatzeko. Ikuspuntu kritiko batetik, irakasle paperaren definizioa ematen du errespetua, poza eta jakinminaren

garrantzia azpimarratuz. Oso liburu atsegina da autoritatea, ideologia, entzuteko gaitasuna, elkarrizketa eta maitasuna irakasle bezela aztertzeke.

Laburbildurik, hona hemen aipatzen dituen edukiak. Lehen atalean irakatearen baldintzaz hitz egiten du: zorrotasuna metodikoa, hezigaien jakitearekiko errespetua, kritikotasuna, estetika, etika, bereizkeria baztertzea eta kultur identitatea berrezagutu eta asumitzeaz. Bigarren atalak, irakastea ez dela ezagutza transferitze soilatik adierazten du eta ikuspegi mugatu hori gainditzeko baldintzak aipatzen ditu eta, azkenik, hirugarren atalean, irakastea giza berezitasun bat dela azpimarratzen du eta horretarako beharrezko diren gaitasunen zerrenda eskaintzen du.

**ASKOREN ARTEAN** (1999): *Paulo Freireren ekarpenak* (Cuadernos de educación; 10). Donostia: Eusko Ikaskuntza.

Eusko Ikaskuntzak argitaratutako testu honetan egile desberdinen lanak biltzen dira. Garrantzitsuenak Paulo Freireren *Pedagogia de la autonomía* euskeratuta. Honekin batera, Donostian 1997.ean izandako jardunaldiaren hitzaldi batzuetan biltzen dira. Freireren inguruan egindako lan interesgarriak, batzuk euskaraz, pare bat gasteleraz; batzuk teorikoagoak eta beste batzuk praktikoagoak. Testuekin batera, argazkiak eta elkarrizketen transkripzioak ere bildu egiten dira.

**GIROUX, H.A.** (1996): *Placeres inquietantes. Aprendiendo la cultura popular*. Barcelona: Paidós.

El autor, catedrático de Educación de la Universidad de Pensilvania, ordena en los nueve capítulos de este libro diferentes ensayos con propuestas para poner en práctica sus teorías sobre la pedagogía crítica. Analiza minuciosamente la publicidad de Benetton, el mundo de Disney, la política educativa en Estados Unidos y películas como *Pretty Woman* o *Gran Cañón*. Con estos ejemplos denuncia el racismo cultural y propone “proporcionar a los estudiantes los instrumentos analíticos para cuestionar las representaciones que producen racismo, sexismo y colonialismo a través del legado de prácticas y discursos etnocéntricos”. Resultan especialmente interesantes los capítulos dedicados a Paulo Freire como intelectual y la reproducción de la conversación mantenida con el filósofo polaco Lech Witkowski.

Un libro para leer con calma que ayuda a revisar modelos culturales en el cine, la fotografía, la política educativa y la publicidad y hace propuestas para analizar con el alumnado de Educación Secundaria la cultura popular.

**CASTELLS, M.** (1997): *La era de la información: Economía, sociedad y cultura*. 3 liburu. Alianza Editorial argitaletxea. Madril.

Gaur egun Manuel Castells, soziologo katalandarra, nazioarteko pentsalari aipagarri eta eraginkorrenetakoa da, eta bere lanek gizartearen zenbait arloetan eragiten dute. Horregatik, gure gizartean informazioaren teknologiak duen eraginari buruzko gogoetak gizarte zientzietan interesa duen edonorentzat baliogarritzat hartzen ditugu. Era berean, hezkuntza esparruan gabiltzanontzat interesgarriak dira, informazio eta

komunikaziorako teknologiek egungo eta geroko gizartearen eremu guztiak “ikutzen” baitituzte.

Bere idazlan nagusienaren berri fitxa honetara ekarri dugu: *La era de la información* delakoa. Hiru liburutan banatzen da. Lehenengoak, *La sociedad red* izenekoak, azken hamarkadetan garatu den iraultza teknologikora hurbiltzen gaitu. Iraultza hau kapitalista sistema berean bilakatu da, industria fasea gaindituz informazio-gizarte bihurtzeko, eta zabaldu den globalizazio prozesuari ateak irekiz.

Prozesu horri lotuta sortzen ari diren gizarte egiturak aztertzen ditu eta gizarteak gero eta gehiago saretan egituratzen dela ondorioztatzen du. Egitura mota honek –sareak-, historian berria ez bada ere, oraingoan bilakatzeko informazioaren teknologian oinarri materiala aurkitzen du. Prozesua islatzen da batez ere informazio ekonomian, non pertsonak, giza-taldeak eta herriak informazioa eskuratzeko eta sarearekin konektatzeko duten gaitasunaren arabera eta baita euren trebetasun intelektualen arabera ere sailkatzen diren. Baina, gero eta maizago kulturaren, politikan eta poterean izaten hasten da ere.

Ezagutza teknologikoetarako sarbidea edukitzea produktibotasunaren eta kompetentziaren oinarri bihurtu da. Lan prozesua banatu egiten da eta lan banaketa berriaren sustraiak sendotzen ari dira. Gizarte honek pertsonak, giza-taldeak eta herri osoak kanporatuko ditu –kanporatzen hasi da-, beste batzuk, ekonomia eta informazio-gizarte batean lan egiten dutenak gizartearen erpinean kokatzen diren bitartean.

Aldaketa horiek giza esparru guztietan beste batzuk sortuko dituzte edo ,hobeto esanda, sorterazten hasi dira dagoeneko. Aldaketa horiek antzemango dira masetako komunikabideetan oinarritutako kulturatik, ohiko bizimodura eta gatazketara, espazio eta denbora-ikuskeran eraldatuz ere.

Bigarren liburua *El poder de la identidad* deitzen da. Liburu honetan zehar globalizazioa jasaten dutenen mugimenduak aztertzen ditu. Globalizazioaren eta identitatearen aurkakotasunak gure mundua eta gure bizitzak arautzen ditu; hala, teknologiaren iraultzarekin batera, kapitalismoarekin birmoldaketarekin batera eta estatismoaren bukaerarekin batera mugimendu indartsuak ari dira garatzen kulturaren berezitasunak eta nork bere bizitza eta ingurunearen kontrola izatea aldarrikatzen dutenak, globalizazioari aurre eginez. Egilearen ustez munduan zehar garatzen ari diren kolektibo hauek (feministak, ekologistak, fundamentalista erlijiosoak, nazionalistak eta lokalistak) informazioaren aroaren sukjektuak izan daitezke eta oso modu interesgarrian aztertzen ditu euren adierazpenak eta antolaketa erak.

Eta azkenean, hirugarrena *Fin de milenio* izendatu du Castellsek. Honetan XX. mendeko azken hamarkadan gertatu diren aldaketarako gizarte eta politika prozesu nagusiak aztertzen ditu, hain zuzen: Sobiet Batasunaren hondamena, kapitalismo berri eta baztertzailer baten garapena, krimen globalaren gorakada, Bare Ozeanoko asiar herrietako agerpena hazkunderako eta krisialdietarako eskualde eraginkor gisa, eta Europako Batasun prozesua, zeinetan estatu era berri baten shastapena ikusten baita, estatu sarea.

Hitz gutxitan amaitzeko, Castellsen gogoetak oso interesgarriak suertatzen dira, duen gaitasuna oso konplexuak diren horiek guztiak argitzeko eta horien artean dauden

loturak azaleratzen baititu. Azken finean, irakasleok gizarte honetan bizi izateko eta bertan eragiteko pertsonak prestatzen laguntzen gaitu.

**AZKEN OHARRA:** Liburu horien analisi bat José Antonio Millán Castellsi egindako elkarrizketa batean (El País, 2000-12-09, *Babelia* 4-5. orr.) aurki dezakegu.

**CASTELLS, M. ():** L'escola ha de liderar la transició a la societat de la informació, "Educató" aldizkarian, 11. zenbakian, 33-37 orri.

Artikulu hauxe Castellsi katalaneraz egindako elkarrizketa dugu. Informazioaren gizartea pertsonari eta bere soziabilitateari eta, finean, hezkuntzari, erabat lotuta dagoela azaltzen du.

Gaur egunean gizartea erdibituta legokeela argudiatzen du, eta horren sustraian informazioaren teknologiaren erabilera legokeela, merkatuaren logika inposatu delako. Egoera honetan gobernuei dagokie berdintasunaren alde jokatzeko, populazioaren ongizatea eskuratu nahi bada.

Panorama honetan eskolak bere egiturak aldatu eta irakasleak birziklatu behar ditu. Irakasleen erronka beren bizitza osoan zehar ikasten ikastea da, dagoeneko dituzten edo ikasten dituzten edukin berriak atzeratzen baitzaizkie eta. Honela irakaslea izateko gizarte eta politika garrantzia berreskuratuko du, gizartearen transizioan eskolak egundako papera jokatu behar duelako.

Informazio-gizarte batean, informazio-eskola ere izan behar dela adierazten du: ikasleei interneten informazioa bilatzen, tratatzen, laburtzen, miatzen, eta abar irakatsi behar zaie.

**CHAMORRO, C.F. (1999):** Manuel Castells, "Ajoblanco", 122. zbk., 1999ko urriak, 36-43. orr.

Artikulu honetan Carlos F. Chamorro, sandinisten gobernuko ministro-ohiak eta hamalau urteetan Barricada egunkariko zuzendariak, Manuel Castells elkarrizketatzen du. Gizarteak azken hamarkadatan ezagutu dituen aldaketak bere bizitzarekin erkatzen du: lehenengoz, Espainiatik erbesteratua 20 urte zituela, Frantziako 68ko matxinadan parte hartzen du eta, berriro, 26 urterekin herri honetatik erbesteratua da. Europa, Asia, Latindar Amerika eta SESB-ohian aditu bihurtzen da eta, errusiar intelektual batekin ezkondu, Berkeley-ko unibertsitatetik Silicon Valleyan hasten den iraultza teknologikoa gertutik behatzen du.

Bizi-esperientzia honek ikuspegi desberdinetatik informazio eskerga biltzen laguntzen dio. Hauen isla elkarrizketa eskaintzen digu zenbait gaietaz.

Castellsek mundu osoan zehar gertaera berriak aztertzen ditu; esate baterako, globalizazioak dakartzen eragin kaltegarriak (kontrol gabeko kapitalen mugimendua, erregioetako krisialdiak...), kontraesanezko gizarteko mugimenduak (fundamentalistak eta, aldi berean mugimendu aurrerakoiak, zapatisten, kasu), "informazio gizartean gertatzen ari diren bazterketa berriak (pertsonena zein munduko erregio osoenak, "zulo

beltzak” beraren esanetan). Nahiko garatzen du gaurko testuinguru honetan, globalizazioan, Estatuari gizarte politikak aurrera eramateko geratzen zaien eskumen erreala, alor honetan eraldaketa garrantzitsua suertatu da eta: Estatu-naziotik Estatu-sareranzko eraldaketa.

Alderdi politikotaz eta gizarte mugimendu berrien paperaz eta legitimitateaz berba egiten du. Berak dio, “ez da etorkizuna, hemen baitago, informazio-sare elektronikoek osatuta, garrantzitsuak diren gauza guztiak zirkulatzen dira: kapitalak, taktika militar berriak, hedabideak, hezkuntza...

**MORENO MARIMÓN, M. ():** Manuel Castells. Retos informativos en la era de la información, “*Cuadernos de Pedagogía*” aldizkarian, 271. zenbakian, 81-85 orri.

Montserrat Moreno Manimónek Castells elkarrizketatzen du, beraren *La era de la información: Economía, sociedad y cultura* trilogia dela eta, gizarte berriaren eraikuntzan eskolari dagokion inplikazioa aztertzeko asmoz.

Hamalau urteetan trilogia idazteko ibili duen bidea azaltzen hasten da. Gizarte berrian informazioa eta pertsonen prozesatzeko duten gaitasun kulturala garrantzitsuago bihurtu dira. Eta hauetan desberdintasunak sor daitezke. Informazio garaian berdintasuna eta desberdintasunaren arteko gakoak heziketan dago.

Hala ere, eskola gizarte, teknologia edo ezagutza baino gutxiago aldatu da. Oraindik munduko esperientzia pedagogiko aurreratuenen ondoan, ikastetxe erlijiosoetan, alderantziz, ikasleak hautatzeko mekanismoak eta adoktrinamientoa ikus daitezke.

Beste alde batetik, Castellsek bereizten du orain gehiago baloratzen den eta baliotsuagoa den artean. Lehenengo kategorian merkatuan preziatzen duena aurkituko genuke. Bigarrenean, aldiz, pertsonaren burujabetza eta bere bizitzan zehar ikasten jarraitzeko duen gaitasuna (zer jakin beharko luke, eta non eta nola ikasi) azpimarratzen du.

Neurri askotako aldaketak egin behar dira eskolan; ordenagailuak jartzea ez da nahikoa, irakaslearen eta familien alfabetizazio erabatekoa ere beharrezkoa da eta, baita teknologi berriak herriaren zerbitzuan ipini ere. Erreforma teknologikoarekin batera eskola malgua izan behar da, non ikasketak aldatu behar diren klaseak eta beharrak egiten duten ahala.

Helburu pedagogikoak kalitatea ziurtatzeko beharrezkoak dira; baina irakasleak ikasleen partaidetzarekin batera helburu horiek betetzeko berezko bidea aurkitu behar dute, sarien, zigoren eta zuzenketen sistema baten bidez. Planifikatu baino gehiago nabigatu behar da.

Ondoren, gizarte mugimenduen egoera (elitismotik eta gizarte abangoardiatik esperimentazio praktikora pasatu behar dute), gure gizartean irudiak duen garrantzia eta indarkeriaren presentzia nabarmena, teknologi berrien humanismoa... arakatzeko dituzte.

Beste alde batetik, fluxuen indibidualizazioaren eta totalitarismo komunalaren artean, identitate espazio desberdinen arteko kultur eta instituzio zubiak eraikitzea proposatzen du, garen moduan eta, aldi berean, gu bezalakoak ez direnekin elkarrekin bizi ahal



izateko. Etorkizunari begira, malgutasuna, autoprogramaziorako gaitasuna, aurkikuntza ikasketa praktikoaren bidez eta bizitza osoan zehar hezkuntza sistema mailakatua beharrezkoak dira. Hori guztia martxan dago, baina oraindik ez dakiguna da oso talde txikira murriztuko den ala jende osoari zabalduko zaion.

**Beste zenbait artikulu Castellsi buruz ala Castellsek berak idatzita:**

**CASTELLS, M.:** Venezuela: globalización y democracia. El País, 1999-09-06.

**CASTELLS, M.:** Sobrevivir al cáncer. El País, 2000-02-06.

**CASTELLS, M.:** Hablando de África. El País, 2000-07-31.

**MARTÍ FONT, J.M.:** Castells deja Berkeley para dirigir la investigación de la Universitat Oberta. El País, 2000-11-28.